

## Unibertsitatea

*Zeruko Argia*, 680. zk., 1976-03-21: 5.

Behin ba omen ziren bi erri.

Erri batean, urruti zeudenak begiz ezin ikusi zituzten miopeak jaiotzen ziren, eta bestean, berriz ingurukoak ezin ikusi zituzten begi-lausoak edo presbitak.

Eta batasuna agin-bide zutela, justizia egitea erabaki zen.

Demokratak zirenez, erririk aundiena zein zen ikustea erabaki zuten lehendabizi, eta alde batekoen eta bestekoen kontaktak amaitu zirenean, garbi-edo ikusi zen miopeak gehiago zirela. Hala, demokratiak organoan agintzen duen bezalaxe, presbizioa sufritzen zutenei miopeen kristal berak jartzea erabaki eta agindu zen legez.

Ara nola, eta miopeen bihotz zabalari esker, presbizioa sufritzen zuten guziak ere miopeak erabiltzen zituzten kristal-mota berdinetik begiratzeko graziaren baimen-mesedearen dina egin ziren.

Unibertsitateak, betaurrekoaren antzekorik badu.

Eta imutuak ere bai.